

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak langile publikoen bizitza pertsonala eta familiarra uztartzen laguntzen duten foru-dekretuen proiektuak aintzat hartuko ditu

Nafarroako Kontseilura joko du izapidetzen jarraitzeko

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 17

Nafarroako Gobernuak gaur egindako bilkuran bi akordio onartu ditu. Horien bidez, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen bizitza pertsonala eta familiarra uztartzen laguntzen duten neurriak jasotzen dituzten foru-dekretuen proiektuak aintzat hartuko ditu. Orain, Nafarroako Kontseilura joko du izapidetzen jarraitzeko.



Aita bat bere semearekin jolasten.

Horrela, lanaldi murrizketako modalitateak handitu eta lizentziak eta baimenak hobetuko dira kasu hauetarako: ospitaleratzeak, gaixotasuna, heriotzak, haurdunaldiak, tratamendu medikoak, senideak zaintzea, prestakuntza eta lan-bizitzarekin eta bizitza familiarrekin zerikusia duten egitekoak betetzeko. Bi dekretuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Gogoratzekoa da neurri horiek aho batez onartu zituztela dagoeneko Gobernuak eta LAB, ELA, CCOO, AFAPNA eta UGT sindikatuek martxoaren 31n, Funtzio Publikoaren Negoziazio Mahai Orokorrean. Horrez gain, Toki Araubideko Foru Batzordeak horri buruzko txosten positibo bat egin zuen maiatzaren 5ean.

Neurri hauekin, Nafarroako Administrazio Publikoak dagoeneko aspaldi hartu zituzten beste autonomia batzuekin parekatuko dira.

Foru-dekretuetako bat langileek beraien lan-bizitza eta bizitza familiarra uztartzeko duten eskubideari buruzko da. Orain arte, langile publikoek seiren bat, heren bat edo erdia bakarrik murriztuz zezaketen lanaldia; hemendik aurrera, oro har, beste lau aukera izango dituzte: lanaldiaren zortziren bat, lauren bat, bi bosten edo bi heren.

Hobekuntzak lizentzietan eta ordaindutako baimenetan

Ordaindutako lizentzia eta baimenei dagokienez, beste batzuk sortu dira: haurdunaldiarengatik, 37. astetik aurrera; ospitaleratuta egon behar duten ume goiztiarren jaiotzarengatik; ezkontidea, bikote egonkorra edo

lehen graduko senideak zaintzeko, gaixotasun oso larria badute; erradioterapia edo kimioterapia tratamenduak jaso ondoren lanera bueltatzen laguntzeko; ezkontidea, bikote egonkorra edo lehen graduko senideak laguntza eskatzen duten prozedura diagnostikoak edo diagnostikoak egitera laguntzeko, eta odola edo odol osagaiak emateko. Halaber, ordaindu gabeko baimen bat sortu da hobekuntza profesionaleko ikastaroetara joateko.

Bestalde, jadanik zeuden zenbait lizentzia eta baimen hobetu edo handitu dira. Azkenik, aurretik zeuden baina arau ez ziren sindikatuen akordio batzuk baimenen dekretuetan ere barne hartzen dira, eta lan-bizitza eta bizitza familiarra uztartzearekin zerikusia duten eginbeharrak betetzeko, eta nahitaezko eginbehar publiko edo pertsonalak betetzeko baimenak definitzen dira.